

Aitor Elduaian

LEIRE AGIRRE

“Gauzak lasaiago hartzeko gogoa daukat, aldatzekoa”

DENBORAK eta buruak eskalada lasaiago hartzeko iradoki diote Leireri eta maila goreneko lehiaketak alde batera uztekoan da. Baiogegin hartu gaitu, jaiotetxe eta bizileku duen Azpeitiko baserrian. Han du etxea, han familia, han entrenatzeko rokodromoa, erlaxatzeko baratza, larreak... Bere munduan zoriontsu da Leire.

PYRENAICA: Beteranoa zarela esanda zer datorkizu burura?

LEIRE AGIRRE: Ba... halakoxea naizela. 32 urte ditut, eta eskaladan ibili naizen bezala ibilita, bada, beterano bat naiz. Ez da zaharra naizenik edo besterik, halaxe da eta kitto.

Maila goreneko lehiaketak uzteko gogoz zaude.

Buruu nekatu egin zaidala antzematen dut: hainbeste txapelketa, denbora... gauzak lasaiago hartzeko gogoa daukat, aldatzekoa.

Hamar urtetik gora maila gorenean. Lehiaketek zer eman dizute?

Asko. Bidaiatzeko aukera, jende asko ezagutzekoa... Munduko ateak irekitzen zaizkizu. Txapelketek, bestalde, erronkei aurre egiten irakatsi didate. Momentu jakin batean, denak denen aurka... eta gaizki pasatuz gero norbere aukera da, norberak nahi izan duelako egon baita hor.

1995eko Espainiako zailtasun eskaladako Txapelketa izan zen zure lehen garaipen handia.

Orduko oroitzapen oso onak ditut. Amestutako zerbait zen, gauzatu egin zena. 20 urte eduki eta salto bat ematea nahi duzu eta... izugarri polita izan zen!

Nazioartean emaitzarik onena iazkoa: Kopako Boulder Txapelketako sailkapen nagusian seigarren.

Emaitzarik onena, bai. Lan asko egin behar izan nuen hartarako. Hiru hilabetez aritu nintzen entrenatzen München propio horretara begira.

Zailtasun eskaladatik boulderrera pasa izana bilakaera natural bat izan da?


Nahi izandako kontu bat da. Boulder egiteko aukera suertatu, galtzekorik ezer eduki ez eta motibatuta egonez gero, orduan dena ematen duzu. Hori izan da dena.

Leire Agirre zertan da espezialista: boulderrean ala zailtasun eskaladan?

Ez dakit. Norberak dauzkan ezaugarriak muturrera eramatea da kontua –dena ematea–. Gero bakoitzak dituen ezaugarri horiek aprobetxatuko ditu, edo falta zaizkionak landuko ditu gehiago. Horretarako gogor entrenatu behar da. Bietatik bat aukeratu? Ez nuke asmatuko. Biak gustatzen zaizkit.

Zure lehiaketa urteen bilakaera nola bizi izan duzu?

95eko lehiaketa, 20 urterekin... ondo asimilatu beharreko zerbait izan zen. Maila nazionalako hirugarren lehiaketa besterik ez nuen eta Espainiako txapelketa irabazi! Hurrengo urtean txapelketa bakarrean parte hartu eta podiuma egin nuen, baina ez nion garrantzi gehiegirik eman. Harkaitzean murgilduta nentzen orduan, dena hara begira landuta. Gero berriro bueltatu nintzen txapelketetara eta dena irabazten hasi nintzen: 98, 99, 2000... titulu horiek denak. Oso motibatuta egon nintzeneko urteak izan ziren. Azkenean lotu egiten zaituen zerbait da, txapelketa bat, eta bestea, eta beste bat, eta... urteak aurrera egin ahala neure buruari galdetu diodan arte: Betetzen al nau honek? Hau al da nahi dudana? Azken bi urteotako kontua da. Txapelketetan jarraitu dut,



ARGAZKAK: IREBEN ARIBICA



■ *Tafraoute, Maroko 2000*

bai, baina esan bezala ez nau hainbeste betetzen. Beste ate batzuk ere ireki nahi ditut, beste jakinmin batzuk asetu.

Zein izan dira zure kirol urte onenak?

99a izan zen harkaitzeko urterik onena. 8b+ mailako bi bide egin nituen –“Simonides” eta “Agur”, Araotzen–, baina bistaz 2003-2004 inguruan aritu nintzen indartsuen eta horrek esperientzia eskatzen du, zugandik onena ateratzea. Landutako bideetan, ordea, –etxetik gertu daukazun horietan–, aukera gehiago dituzunez, dena ematen duzu. Eta hala izan zen 99-2000 inguru horretan. Garai horretan, gainera, neure kirol ibilbideko sasoirik onenean nengoen, 24-25 urterekin. Ez dut esan nahi hortik aurrera indartsu egon ez naizenik, baina gehiago aritu naiz helburu zehatzetarako prestakuntza egiten.

Nolako zen sasoirik oneneko Leire?

Oraintxe bezalakoa. Ez naiz batere aldatu, ez orain, ezta lehenagotik ere.

Eta kanpotik sentitu duzu aldaketarik?

Inguruak beti eragiten ditu. Txapelketan nire eta hormaren arteko borroka dago. Beraz, hor inguruko eragina ahaztu egin behar duzu eta zentratu: zu eta zailtasuna. Baina askotan ez da erraza. Inguruko eraginak, txapelketetan bete egiten ninduen lehen, motibatu, baina azken aldi honetan txapelketek hainbeste betetzen ez nautenez alderantziz gertatu zait. Asko afektatu dit inguruak. Edo oso zentratuta zaude, psikologikoki prestatuta, edo bestela huts egiten duzu. Nik behintzat huts egin dut. Baina sentazio eta emozio horiek bizitzea ere interesgarria izan da aurrera begiratzeko.

Zure hitzekin amore ematen ari zarela pentsa liteke, dena uztera zoazela.

Ez, ez. Aldatzea da kontua, ez dauka zerikusirik uztearekin edo amore ematearekin. Beste gauza batzuetara beha jarri naizela esan nahi dut: nik orain 8b+ mailako zerbait landu dezaket esaterako, edo datorren urterako 8c bat buruan sartu, zergatik ez?

Horretan ari zara...


Bai (irribarrez).

Zuk hamarkada bat ezagutu duzu txapelketetan. Gauzak zertan aldatu dira?

Eboluzio handia gertatu da. Duela hamar urte jendeak oso informazio gutxi zuen txapelketei buruz. Orduan *boom* bat izan zen. Adibidez 97an Gasteizko Foruen plaza jendez gainezka bete zen eta orain ordea ez da hainbeste biltzen, non eta prestigio handiko zerbait antolatzen ez duzun: horretan eredia Dimakoa izan da azken bi urteotan. Txapelketen profesionaltasunean egon da salto handia: orain, orokorrean, orduan baino askoz profesionalagoak dira antolakuntzak. Partehartzailen bilakaeran, berriz, jende gaztea orain ez dut ikusten hain motibatuta. Jende berri gehiago behar da, baina horretarako txapelketak erakarri egin behar ditu, gustatu egin behar zaie eta ez zaie denei gertatzen. Harkaitzera ere jende askok joan nahi du.

■ *Maidar, Maidar, Leire, Elsa eta Asier (Beltza) Xoxoten*





■ Yosemite, USA 1994. Tuolumne Meadows CA

■ 1991, Euskadiko txapelketa

Txapelketak gustatzen zaizkion gazte bat bultzatuko zenuke horretan murgiltzera?

Bai. Lehenik zer nahi duen ikusi behar luke eta gero hartara zuzendu. Baina egia da lehiatzeko balio egin behar dela. Maiz gertatzen da haitzean oso ondo ibili arren, gero lehiaketarako balio ez izatea.

Zer erakutsi asko daukazu zuk.

Ikasteko gogoia daukanak beti dauka beteteranoa den norbaitengandik zerbait jasotzeko aukera. Jendeari beti gustatzen zaio aholku onak hartzea eta nonbaitera lagunartean joaten garenean edo beste batzuekin batera aritzen garenean, ni behintzat beti egoten naiz prest emateko.

Eskaladak bizitzeko adina eman dizu?

Denboraz bai, baina diruz juxtu, eroso ez. Laguntzak daukagu materiala ordaindu behar ez dugulako eta sponsorrak diru kopuru bat ematen digulako. Eskaladako saltsa komertziala mugitu behar izaten da horretarako eta zaila izaten da.

Horretarako erakusleihu nagusietako bat txapelketak izaten dira. Orain alde batera utziko badituzu, nola moldatuko zara?

Beste era bateko irudia eman beharko dut: harkaitzean eskalatzen, bidaiak egiten, artikulua idazten, proiektioak ematen... Txapelketetatik aparte bide asko daude.

Etorkizunari begira bertigorik bai?

Dena ez da beti poztasuna eta segurtasuna. Bizitzaren aurrean zalantzak eta beldurrak beti izaten dira. Hala behar du. Denok ezagutu behar ditugu sentsazio horiek. Beraz, bertigorik ez. Eskaladari lotuta jarraituko dut beste hainbat gauzarekin bezala, baina urtean hamar helburu jarri beharrean, bi edo hiru jarri eta horietan zentratuta, gauzak ondo ateratzeko askoz aukera gehiago dago.

20 URTEKO SOKA

20 urte dira Leire Agirre eskalatzen hasi zenetik, nahikoa denbora ajeak izateko, eta nahikoa baita ere zerk betetzen duen, eta zerk ez, jakiteko. Ibilbide horri errepasoa egiterakoan, ordea, irribarrea da nagusi haren aurpegian. Atzera-begirako kontuekin hasi besterik ez eta bihotza taup-taup jarri zaio: "Han kantera!", -oihukatu du Baiolegi ataritik Izarraitz aldera begira gaudela-, "Ordu mordo sartutakoak gara bertan!". Jaiotetxea eta bizitokia du Baiolegi baserria, Azpeitian. Handik kanterara aitaren batean irits liteke. Garai batean Izarraitzek zauri urratua izan zuena, Azpeitia eta inguruko eskalatzaileen eskola da orain, beste askorena bezala, Leire Agirreraren eskola izan zena: "Ikastolatik Xoxotera irteera egin genuen batean izan nuen kanteraren berri estrainekoz. 12 urte nituen. Oso garbi ikusi nuen aurrerantzean eskalatzaile izan nahi nuela, eskalatzaile ona. 13-14 urte nituela astebururoko plana bihurtu zen kanterara joatea. Oso lagun-giro ona sortu genuen han biltzen ginenon artean. Hala hasi nintzen 'Puti-puti' (6a+), 'Sagardo' (6b+)... eta halakoak kateatzen, sokarekin lehendabizi baina bitan-edo sokarik gabe ere. Orduan moda-modan zegoen *free-climbing* egitea.

Bizi gareneko gizarte honen aurrean *free-climbing* egiten ere goiztiarra izan zen: 16 urterekin utzi zuen eskola. "Ikasten ari nintzenak ez ninduen betetzen. Beste era batera segitu nahi

nuen", aitorzen du. Garai hartan Yosemitetik iritsitako eskalada albiste eta istorioek askoz ere gehiago kitzikatzen zuten eskolako liburuak baino. Hala ere, bi urtetan Kirol Terapeuta diplomatura atera zuen Tolosan eta ordurako baserri-lanean eta etxekoek jarritako kafetegian aritzen zen.

Eskalada bilakaeran, 16tik 20 urtera bitartean kanteratik tarteka irten eta Etxauri, Riglos, Vilanova, Siurana... ezagutzen hasi zen. Kanpora begira ere orduan jarri zen, eta ez edonora gainera! "94an Yosemiteira joan ginen. Halako paretatzarra begi aurrean ikustea... Ederra! Bidaia oso aberatsa izan zen". Hurrengo urtean, 1995ean, irabazi zuen lehenengoz zailtasun eskaladako Espainiako Txapelketa. Geroztik beste sei alditan nagusitu da txapelketa horretan.

1995ean bertan joan zen lehenengoz Frankenjurara, Alemaniako eskaladaren paradisura. "Geroztik, ez dut urterik pasa hara joan gabe", dio. Rotpunkt-ak gantxo dezentekoa izango zuen horretan, baina baita 1996an hantxe ezagutu zuen Herbert mutil lagunak ere. Euskal Herrian elkarrekin bizi izan ziren urte batzuetan eta hormetako graduetan bezain bizi moldatu ziren mantenu-xoxak lortzeko lanetan: "batak alemaniera irakatsi, besteak txapelketak irabazi, horiek ziren gure diru-iturriak". Gaur arteko Leireren palmaresa txapelketetan emaitza bikainez josia dago. Xox asko beraz? "Ez ezazu pentsa! Eskerrak babesleei eta, noski, baita etxekoei ere, bizitokirik eta jatekorik ez zait sekula faltatu".

Txapelketen betekada iaz hasi zitzaion eta hala joan zen Nepalera, Sagarmatha-ko zeharkaldia egitera. "Txapelketak, isolamendu tartekak, tentsioa... alde batera uzteko primerakoa izan zen". Bidaia harez geroztik planteamenduak aldatu egin zaizkio errotik: "begiak irekita etorri nintzen. Eskalada ez da gauza bakarra, beste mila etapa eta kezka daude eta interesantea iruditzen zait beste hainbat herrialde ezagutzea eta beste gauza askorekin betetzea".



ARGAZKIA: MIKEL LLONCH

Eskaladari emandako 20 urteak, hala hautatuta, kate motz samarrean egin ditu Leirek. Hala eta guztiz ere, ez da korapilatuta geratu. Eskarmentu gehiago nahi du, bizitza ezagutzen jarraitzeko gogoia du. □

HAITZEAN

- 1997: "Surveiller et Punir" 7a+ 120m begibistan, Verdon, Frantzia.
"Gena" 8a Araotz.
"Accion Mutante" 8a+ Araotz.
- 1998: "Bizkarroiak" 7c begibistan, Baltzola.
- 1999: "Simonides" 8b+ 1. igoera Araotz.
"Agur" 8b+ 1. errepikapena, Araotz.
- 2000: "-Parva naturalia" 8b Araotz.
- 2001: "Matrix" 8a bulder trabesia, Frankenjura, Alemania.
"Nosferatu" 7c+ bulder Altmuhltal, Alemania.
- 2002: "Ongi Etorri" 8b Baltzola.
"Patriarca" 8b Araotz.
- 2003: "Bietan Jarrai" 8b Araotz.
"Samba pa ti" 8a begibistan, Teverga, Asturias
- 2004: "Buru Gorri" 8b+ Araotz,
"El pellejo del viejo" 8b Araotz
- 2005: "Anangu" 8b Araotz
- 2006: "Lorea" 8a+ Araotz

TXAPELKETAK

- 1995: Espainiako txapelketa 1. postua Gasteiz.
- 1997: 1. Munduko kopa 17. postua Praga,
- 1998: Espainiako txapelketa 1. postua Granada,
Espainiako bulder txapelketa 1. postua Oviedo, Asturias
- 1999: Espainiako txapelketa 1. postua Zaragoza.
- 2000: Espainiako txapelketa 1. postua Benasque.
Munduko kopa bulder 4. postua Munich.
Munduko kopa bulder 4. postua Rovereto, Italia.
- 2001: Espainiako txapelketa 1. postua Oviedo, Asturias.
Munduko kopa bulder 5. postua Birmingham, Ingalaterra.
- 2002: Espainiako txapelketa 1. postua, Avilés
Espainiako bulder txapelketa 1. postua Oviedo, Asturias.
- 2003: Petzl roc trip 1. postua, Millau, Frantzia.
- 2004: Espainiako txapelketa 1. postua Avilés, Asturias.
- 2005: Munduko kopa bulder 6. postua Birmingham, Ingalaterra.

BABESLEAK

Boreal, Petzl, Beal, Kirolgi, Ternua, Bolle, Eusko Jaurlaritz.



ARGAZKIA: MIKEL LLONCH

RESUMEN

20 años desde que comenzó a escalar en la cantera de Izarraitz. Hasta la fecha una trayectoria vital siempre unida a la escalada. La

suya es una cuerda que tiene mucho para contar: los primeros pinitos en la cantera azpeitiarra, las salidas a Etxauri, Riglos, Vilanova, Siurana... y a Yosemite, Frankenjura, Nepal... Los campeonatos de España de dificultad encadenados desde el 95, las participaciones en las Copas del Mundo... Hoy desde el caserío Baiolegi en su Azpeitia natal reflexiona sobre la escalada y la nueva percepción que tiene de la misma: se lo quiere tomar con más 'filosofía'. □